




NBA



Jordanen eskutik aurreneko garaipena lortu zuen Chicago Bullsek.

Faboritoez denboraldiko lehen garaipena lortu dute NBA ligan

DONOSTIA

NBA ligako estreinuko ihardunaldia jokatu zen atzo goizaldean. Partidu horietan ez zen ezuste handirik izan, faboritoez irabazi bait zuten gehienetan. Chicago Bullsek denboraldiko lehen garaipena lortu zuten Philadelphia 76'ers taldearen aurka (110-90). Iazko txapeldunek, Michael Jordan eta Scottie Pippen izarrekin, ez zuten partidua irabazteko arazo handiegirik izan. Philadelphiaren aldetik Charles Barkley izan zen betiko moduan jokalaririk aipagarriena.

Auburn Hillen Detroit Pistonek porrot handia jaso zuen Milwaukee Bucksen aurkako neurketan. Chuck Dalyren mutilek ez zuten batere ondo jokatu, aurrendenboraldian jokalaririk berriak fitxatu arren. Milwaukee talde sendoa osatu du denboraldi honetako eta joko sistemak ondo ikasi dituela erakutsi zuen Detroiten. Dale Ellis joko antolatzailea izan zen partiduko jokalaririk onena,

24 punturekin. Houstonen, Rocketsek garaipen garrantzitsua eskuratu zuten Los Angeles Lakers taldearen aurka (126-121). Texasekoen aldetik ez zuten jokatu Karl Herrera venezolarrak, lesio baten ondorioz. Rocketsek bi luzamendu behar izan zituzten partidua beren alde erabakitzeke, Californiako taldean Magic Johnson eta Sam Perkins jokalaririk garrantzitsuenak falta ziren arren. Johnsonek ez zuten neurketa guztian jokatu, gripea bait zuen. Sam Perkins berriz, lehen laurdenaren amaieran lesionatu zen begietan eta kantxa utzi beharra izan zuen.

New York Knicksen porrota izan zen lehen ihardunaldiko gauzarik aipagarriena. Pat Rileyk zuzentzen duen taldea agertzen zen Orlando Magicen aurkako partidua irabazteko faborito, baina azkenean 106-96ko emaitzaz galdu zuten. Knicksek fitxaketa asko egin du denboraldi honetarako, entrenatzailea aldatzeaz gain eta denbora beharko du Rileyren joko sistemak ikasteko.

Emaitzak

Chicago Bulls	110	Philadelphia Sixers	90
Orlando-Magic	106	Nueva York-Knicks	96
New Indiana-Pacers	103	Washington-Bullets	109
Boston-Celtics	111	Charlotte-Hornets	108
Minnesota-Timberwolves	97	Utah-Jazz	112
Detroit-Pistons	99	Milwaukee-Bucks	109
San Antonio-Spurs	140	Dallas-Mavericks	99
Houston-Rockets	126	Los Angeles-Lakers	121
Denver-Nuggets	105	Golden State-Warriors	108
Portland-Trail Blazers	117	Cleveland-Cavaliers	106
Sacramento-Kings	94	Los Angeles-Clippers	90
Seattle-Supersonics	95	Phoenix-Suns	99



Munduko Rugby Txapelketa

Australia txapeldun Inghaterrak hobe jokatu arren Twickenhamen

Galtzaileak eskuz saiatu ziren ozeaniarren defentsa bikaina zulatzen

Australiak irabazi du Munduko II Rugby Txapelketa, atzo Twickenhamen Inghaterra 12-6 menderatzen. Inghaterrako aurrelarigoa nagusi agertu zen zelaian bildutako 50.000 ikusleren aurrean, baina australiarren markagailuan aurrea hartu eta ondo defendatu zuen abantaila. Hobe jokatu zuten ordea ingelsek

KOLDO ALDUNTZIN / DONOSTIA

Merezimenduak eta baloia eskuetan gehiagotan edukitzeak erabaki baleza neurketa bat, honako honetan Inghaterra litzateke munduko txapeldun. Ez ginduzkean ohituta Inghaterrak eskuko jokora, eta atzo askotan saiatu zen baloia eskuz esku mugitzen. Egia esanik, behin baino gehiagotan lortu zuen jokaldia lotzea eta arriskua sortzea australiarren atzelarigean.

Hala ere, zenbait hutsune agerian geratu ziren inglesen atzelaldeko lerroan, azkartasun falta agian. Aurrean berriz, ohizko jokoa hirugarren lerroan oinarriturik, beti erasorako prest; eta bigarren lerroa, berriz ere izugarria. Hasierako minutuetan izan ezik, Inghaterra nagusitzen joan zen partidua aurrera egin ahala. Horri hirugarren lerroaren etengabeko presioa erantsiz gero, ulertzekoa da eskuan hainbeste baloi izatea.

AUSTRALIA USTE BAINO APALAGO

Bi aurrelarigoen artean australiarren aldeko desoreka izan arren kilotan (543-513), jokoan pare ibili ziren mele bilduetan. Maul sarkorretan aldiz ingelesak nagusitu ziren eta horrela metro asko irabazi zituzten.

Australiak pentsa genezakeen baino maila apalagoa erakutsi zuen orokorrean, garaipena eta munduko titulua lortu arren. Horixe da ordea balio duena. Aurrekaldean lan onena 115 kiloko Ofahengaek egin zuen. Atzelaldean berriz, ohi bezala Lynagh adi eta zur ibili zen, behar zenean hankako jokoarekin arriskua urruntzeko. Bestela, defentsa izan da australiarren punturik sendoena aurrean zein atzean.

ARROINAK ENTSEIU ERABAKIORRA

Australiak egin zuen partiduko sakea. Lehen touchean gauza argirik ez, norabide gabeko eskukada ugari eta ondorioz jabetza argirik ez. Ostikako jokoa nagusi bazen ere, ingelsek zenbait jokaldi burutu zuten. Hogeigarren minuturako, Lynaghek aurrea hartzeko lehen aukera alferrik galdu zuen, zigor kolpea hutsegitean. Campese entseia lortzeko zotian izan zen bost minutu aurrerago ostikada luzea eman ondoren, baina

AUSTRALIA

- 1 Daly
- 2 Kearns
- 3 McKenzie
- 4 Eales
- 5 McCall
- 6 Poidevin
- 7 Ofahengaue
- 8 Coker
- 9 Farr-Jones
- 10 Lynagh
- 11 Campese
- 12 Horan
- 13 Little
- 14 Egerton
- 15 Roebuck

12

Australia (9 + 3). Entseiu bat (McKenzie 30')

Bi zigor kolpe (Lynagh 21', 65') Transformazio bat (Lynagh 31')

Inghaterra (0 + 6). Bi zigor kolpe (Webb 62', 72')

Epailea: Derek Bevan (Gales)

Zelaia: Twickenham, Londres (50.000 ikusle)

INGLATERRA

- 1 Leonard
- 2 Moore
- 3 Probyn
- 4 Ackford
- 5 Dooly
- 6 Skinner
- 7 Winterbottom
- 8 Teague
- 9 Hill
- 10 R. Andrew
- 11 Underwood
- 12 Guscott
- 13 Carling
- 14 Halliday
- 15 Webb



Inghaterrak ezin izan zioten australiarren presioari ihes egin.

✓ Inghaterrak Mundial osoan baino eskuko jokoa gehiago egin zuen finalean, baina ezin izan zuten australiarren defentsa gainditu, jokaldiak lotu eta arriskua sortu arren.

entseiu lerroaren pareraino iritsi eta ez zuten eskuratzen asmatu.

Partiduko jokaldi erabakiorrena ordu erdia betetzean iritsi zen. Australiarren aldeko touchean, entseiu lerrotik bi metrora, bigarren lerroko McCall jokalaririk baloia bikain eskuratu eta jokalaririk bildu eta bul-tzadaxo bat eman ondoren McKenzie baloiaz jabetu eta egin zuen entseia. Sarri ikusten ez direnetakoa, arroinek ez bait dute entseia lortzeko aukera handirik izaten. Segidan etorri zen Lynaghen transformazioa, eta 0-7 aurreratu ziren ozeaniarrak.

Beste zigor kolpe bat ere lortu zuen Lynaghek, eta atsedenera 0-9

aurreratuta iritsi ziren australiarrek. Bigarren zatian ingelsek erasora jo zuten indartsu, baina are indartsuagoa azaldu zen hormaren kontra egin zuten topo, batez ere azken hamar minutuetan. Inghaterrak alde izan zituzten zigor kolpeetan eskura jokatzea erabaki zuten, bestela agian ez bait zuten hageatarako bidean asmatuko ostikoz. Australiarren defentsa bikaina —ia gaindiezina— gehiegizkoa izan zen ordea inglesentzat.

Australia dugu beraz munduko txapeldun berria, New Zealanden lekukoa hartuz. Oraingoan bederen, Ozeania izango da beste lau urtean munduko erregea rugbyari.